

# Zaputzak gerran

**N**eure inguruetara begiratu, erreparatu, eta maiz fortunatzen zait zaharrenetakoa izatea. Ez da hau inork izan dezakeen sentipenik gozoe-na eta itxaropentsuena, ez mikatzena ere, galdutako hainbeste federen artean ilusioa eta bizipoz apur bat, oraindik ere, sentitzeko kapaz denarentzat.

Hogei urte nituen diktadorea hil eta haren diktaturapetik ateratzen hasi ginen; hogeita hiru, lehenbiziko aldiz, estranjeriako eta ametsetako herrialde inbidiatuetan bezala, neure botoa eman nuela; demokrazia genuen. Geroztik hona dozena bat hauteskunde nagusi ezagutuko ditut abenduaren 20koekin. Hutsik egin gabe eta hautu militanteak beste hauturik egitea eragotzi gabe, baina behin edo beste ez bada zalantzarik gabe, eman izan dut botoa ondorio ez beti gogokoekin. Hala ere, inoiz ez naiz damutu emandako eta egindakoez. Gero berandu izaten da egindakoaren pena eta damuak eraginkortasunik izateko.

Lurrindu ez diren orduko ametsak dezente aldatu zaizkit, baina gogorik eta guztiontzako ongizate nahia eta horretarako tresna egokien beharraren sentipenik ez zait falta, ez nuke huts egin nahi nire esku leudekeenetan. Ez daukat lehengo federik ez jendearengan, ez prozeduretan, ez ia ezertan.



**Ramon Etxezarreta**

PSE-EEKO KIDEA

@retxezarreta

Lurrindu ez diren orduko ametsak dezente aldatu zaizkit, baina gogorik eta guztiontzako ongizate nahia eta horretarako tresna egokien beharraren sentipenik ez zait falta

Handik atera eta etxeko terrorismoa-ren diktadurari kontra eginaz bozkatu dut berrogei urtean. Prezio garestia izan du horrek, lapurreta, ustelkeria, eskubide urraketa ugari, tortura... eta hala ere politikan fede izan dugu eta politika, horren alternatiba ezinbesteko zela uste izan dugu, hori uste nuen or-

daina. Joan zaigu gure azken diktadura eta akituta harrapatu gaitu momentuak. Dena emango zigula espero genuenak ez gaitu ase. Euskara politikatik atera behar omen da, bizikidetzak politika gainditu behar omen du, ez omen da berdintasunaren eta parekidetasunaren erabilera politikorik egin behar, oroimena berreskuratzea obligazio moral bat omen dugu, ez politikoa, sektarismoa interes politikoa omen, hautu politikoari ez omen zaio erreparatu behar. Ez dakit zergatik ez duten garbi esaten politikak enbarazu egiten diela eta debekatzea hobe dugula. Demokrazia zail eta konplikatua egiten zaie, deserosoa, eta apaiz ohiak eta apaiz-ke-riak jabe egin dira gurean, jende ona, jende zintzoa, baina ez demokrazia zaleak eta demokrazia praktikatzaileak, politikak gogaitu egin gaituela dioten arima jaleak.

Eta hauteskunde bat gehiago, bipartidismokoek proposamen zehatzak egin beldur, populismoak bereizten lanak zeren alde edo zeren kontra dauden, eta gure abertzaleak itxoiten proposamen zehatza definitu ezinik baina bizirik mantentzen dituen haserrearen garrari piztuta eutsi nahian. Gerra jarduna aldatu da, gerra sartu digute hezurretaraino, gerran sartu gaituzte, sartu gara, gerran gaude... ■

**LUR eta AMETO**  
Euskal Herriaren historia

EZAGUTU GURE HERRIAREN HISTORIA

EZAGUTZA LIBURUA

GALDERA JOKOA

www.luretaametshistorian.eus

Kaxipolresta

Ikastolenkartas

elkar